

Mondragon Unibertsitatea Materialen XI. Biltzarrean.

2010/07/01

2010eko ekainaren 23tik 25era, Materialen gaineko Biltzar Nazionalaren XI. edizioa egin da, Zaragozan, eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko kideek partaidetza nabarmena izan dute, zehazki, Mekanika eta Industria Produkzioko departamentuko doktoregaiek. MGEPEk aurkeztu dituen gaiak askotarikoak izan dira, horien artean likidoak, polimeroak, metalak zein hezkuntza arloko gaiak, zenbait eremutan aplikatzeko, hala nola aeronautikan, jasokuntzan, osasunean, automobilgintzan edota irakaskuntzan. Gai teknikoak aurkezteaz gain, biltzarrak partaideen arteko harreman pertsonalak sendotzeko balio izan du, baita beste ikerketa talde batzuekin harremanetan jartzeko ere. Hurrengo hitzordua bi urte barru izango da, Alacanten.

